

AURKEZPENA

Gu Lizardiko Bigarren Batxilergoko 17 urteko lau ikasle gara. Gure taldeko hiru partaidek gizarte zientzitako batxilergoa egiten dugu eta laugarren kideak zientzitakoa. Ikasgai hau aukeratu dugu interesgarria iruditzen zaigulako enpresari buruzko gauza berriak ikastea, hau da, ideia bat nola garatu, enpresa bat sortzeko eman behar diren pausoak...

Sortu dugun enpresa kirola sustatzeko baliabide bat da, aplikazio baten bitartez, kirola ez egiteko aitzakirik ez izateko. Alde batetik, gure helburua kirola indartzea eta jendea hau egitera bultzatzea da. Bestalde, kirola gure bizitzaren zati garrantzitsuenetako bat eta osasuntsu egoteko ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.